# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

### 3476

*IRAGARKIA, 2019ko uztailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako linea berri honetarako proiektua: Artzentaleseko eta Sopuertako (Bizkaia) udal-mugarteetan, 13,2 kV-ko goi-tentsioko linea elektrikoa, «Arcentales-Beci, cto. 1» eta «Sopuerta-Alen, cto. 3» lineak lotzen dituena.*

Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan (2002-12-23ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) zehaztutako ondorioetarako, eta lege-testu hauetan xedatutakoarekin bat: testu horretako azken xedapenetako lehenengoa; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikulua; Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikulua (2013-12-27ko BOE); Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena (2011-05-31ko EHAA), jendaurrean jartzen da jarduera hau, zeinetarako eskabidea Iberdrola Distribución Eléctrica SAU-k egin baitu.

Espedientea: 48-AT-Y-2019-00053.

– Kokalekua: Artzentaleseko eta Sopuertako udal-mugarteetan.

– Aurrekontua: 109.223,12 euro.

– Xedea: energia elektrikoaren kalitatea eta horniduraren segurtasuna hobetzea.

Jardueraren ezaugarri nagusiak:

13,2 kV-ko aireko linea elektriko berria, bertan dauden «Arcentales-Beci, cto. 1» eta «Sopuerta-Alen, cto. 3» lineak lotuko dituena. Zirkuito bakarreko 2412 metro.

Instalazioa egiteko administrazio-baimena, egikaritze-proiektuaren onarpena eta onura publikoaren deklarazioa eskatzen da.

Argitara ematen da hori guztia jendeak horren berri izan dezan, bereziki lursailen jabeek eta jarduerak ukitutako gainerako titularrek, zeinek dokumentazioa aztertu ahalko baitute sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao), dagokion udalean edo url honetan: http://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/

Iragarki honen amaieran dago jasota interesdunen zerrenda. Bidezko iritzitako alegazioak – bi kopia – dagokion ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, hogei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bilbao, 2019ko uztailaren 5a.

Lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

ERANSKINA

Artzentaleseko eta Sopuertako (Bizkaia) udal-mugarteetan, 13,2 kV-ko goi-tentsioko linea elektrikoa, «Arcentales-Beci, cto. 1» eta «Sopuerta-Alen, cto. 3» lineak lotzen dituena

| FINKA (Proiektuaren arabera) | KATASTRO DATUAK | | | TITULARRA | AFEKZIOAK | | | | | | | | | | | LURZORUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | Zuhaitz azalera (m2) | | | | Sarbideak | | | |
| | UDALERRIA | Polig. | Lursaila | Jabea | Euskarria | Euskarriaren azalera (m²) | Linearen luzera (m) | Hegaldi-zorra (m²) | Erabilera aldaketa eta ebaketa | Erabilera aldaketa, ebaketa gabe | Ebaketa, eabilera aldaketa gabe | Zuhaitz mota | Berria (m²) | Egokitu beharrekoa (m²) | Aldi baterako okupazioal (m²) | |
| 1 | Artzentales | 2 | 039 | Artzentaleseko Udala | 9211N, T1 eta T2 | 13,40 / 5,02 / 4,62 | 352 | 3.170 | - | - | - | - | 554 | - | 54 / 54 / 48 | Alfer-lurrak |
| - | Artzentales | - | - | Artzentaleseko Udala | - | - | 48 | 406 | - | - | - | - | 61 | 620 | - | Katastro bidea |
| 2 | Artzentales | 2 | 037 | Artzentaleseko Udala | T3 | 4,62 | 27 | 234 | - | - | - | - | 32 | - | 48 | Alfer-lurrak |
| - | Artzentales | - | - | Artzentaleseko Udala | - | - | 4 | 36 | - | - | - | - | - | - | - | Katastro bidea |
| 3 | Artzentales | 4 | 001 | Artzentaleseko Udala | T4 | 4,62 | 223 | 2.834 | 3.940 | 1.524 | - | Pinuak (15-20 m) eta eukaliptoak (10-12 m) | - | 490 | 48 | Egur-basoa / Eukalitu-basoa |
| 4 | Artzentales | 4 | 005 | Artzentaleseko Udala | T8, T9, T10 eta T11 | 4,62 / 5,02 / 5,34 /5,34 | 526 | 4.235 | 1.199 | 11.268 | - | Eukaliptoak (10-12 m) eta sahatsak (6 m) | 156 | 253 | 48 / 54 / 60 / 60 | Lur elkorrak / Eukalitu-basoa / Alfer-lurrak |
| - | Artzentales | - | - | Artzentaleseko Udala | - | - | 3 | 68 | - | - | - | - | - | - | - | Katastro bidea |
| 5 | Artzentales | 5 | 173 | Artzentaleseko Udala | T5, T6 eta T7 | 4,33 / 4,33 / 4,33 | 431 | 4.839 | 5.574 | 7.212 | - | Eukaliptoak (3-5-7-8-10 eta 12 m), aritzak (6 m) eta arteak (8 m) | 308 | - | 42 / 42 / 42 | Egur-basoa/Eukalitu-basoa |
| - | Artzentales | - | - | Artzentaleseko Udala | - | - | 7 | 103 | - | - | 77 | Eukaliptoak (3-7 m) | - | - | - | Katastro bidea |
| 6 | Artzentales | 5 | 175 | Artzentaleseko Udala | - | | 14 | 185 | - | - | 13 | Eukaliptoak (3-7 m) | - | - | - | Sastrakadiak |
| - | Artzentales | - | - | Artzentaleseko Udala | - | - | 41 | 393 | - | - | - | - | 21 | 764 | - | Katastro bidea |
| 7 | Sopuerta | 19 | 210 | Sopuertako Udala | T12 | 4,33 | 90 | 398 | - | - | 50 | Ezezaguna | 293 | - | 42 | Lur elkorrak |
| - | Sopuerta | - | - | Sopuertako Udala | - | - | 5 | 24 | - | - | - | - | 8 | 768 | - | Katastro bidea |
| 8 | Sopuerta | 19 | 205 | Sopuertako Udala | T13, T14, T15, T16 eta 1710N | 4 / 4,33 / 4,33 / 4,33 / 12,74 | 632 | 6.598 | - | - | 5.234 | Sahatsak (4-6 m), elorri zuria (5 m), lizarrak eta abar (6-18 m), pinuak (15-20 m), eukaliptoak (20-25 m) eta lizarrak (12-16 m) | 522 | 668 | 36 / 42 / 42 / 42 / 48 | Lur elkorrak / Alfer-lurrak |
| - | Sopuerta | - | - | Uraren Euskal Agentzia (URA) | - | - | 1 | 17 | - | - | - | - | - | - | | Erreka |